

## **Andoaingo Udalak eta LHko ikastetxeek Andoaingo 2. Lanbide Heziketako Azoka abian jarri dute**

- Andoaingo Udalak eta Andoaingo Lanbide Heziketa eskaintzen duten hiru ikastetxeek (La Salle Berrozpek, Leitzaran Institutuak eta ESCIVIK) elkarlanean antolatu dute PREST! Andoaingo 2. Lanbide Heziketako Azoka, eskualdeko gazteei LHK eskaintzen dizkien aukerak ezagutarazi eta etorkizun profesionala erabakitze bidean laguntzeko helburuarekin.

Bigarren edizio honek iaz hasitako bideari jarraipena emango dio, baina aurten marka propioarekin aurkezten da: PREST!, “zure aukera” lelopean. Ekimen honen bidez, Andoaingen eskaintzen den Lanbide Heziketaren ikuspegi global eta eguneratua eskaini nahi da, prestakuntza-eskaintza balioan jarriz.

Azoka martxoaren 16an eta 18an egingo da, Bastero Kulturguneko erakusketa gelan:

- Martxoak 16 (astelehena): 10:00–14:00 eta 16:00–20:00.
- Martxoak 18 (asteazkena): 10:00–14:00.

Ekitaldia irekia izango da Andoaingo eta inguruko herritar guztientzat.

### **Mahai-ingurua eta stand informatiboak**

Martxoaren 16an, 18:00etan, “Etorkizuna diseinatzen: LH, aukeraz beteriko bidea” izeneko mahai-ingurua egingo da Bastero Kulturgunean bertan. Solasaldi honek Lanbide Heziketaren balioa, lan-irteerak eta etorkizuneko aukerak izango ditu ardatz.

Gainera, azokan zehar stand informatiboak egongo dira, ikastetxe bakoitzaren eskaintza modu bisual eta praktikoan ezagutzeko. Standetan, irakasleek eta ikasleek zikloen edukiak, praktikak eta lanbide-irtenbideak azalduko dituzte, eta bisitariek orientazio pertsonalizatua jasotzeko aukera izango dute.

## **Elkarlanean antolatutako eskaintza zabala**

Azokan parte hartuko dute Andoaingo LH eskaintza osatzen duten hiru ikastetxeek: Leizaran Institutua, ESCIVI eta La Salle Berrozpe. Hiru ikastetxeen eta Udalaren arteko lankidetzak honek Lanbide Heziketaren aldeko apustu partekatua indartzen du.

Andoainen eskaintzen den Lanbide Heziketak enplegarritasun handia du, eta eskualdeko enpresek geroz eta gehiago eskatzen dituzte profil tekniko eta espezializatu horiek. Gainera, LHK aukera ematen du Dual Formazioaren bidez lehenengo ikasturtetik praktikak egiteko, eta baita Erasmus+beken bidez atzerrian lan-esperientzia eskuratzeko ere.

## **Parte hartuko duten ikastetxeen eskaintza**

Oinarrizko Maila:

- Elektrizitatea eta Elektronika (La Salle Berrozpe)

Erdi Maila:

- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta (Leizaran Institutua)
- Disk-jockeya, bideoa eta soinua (ESCIVI)
- Mantentze-lan elektromekanikoa (La Salle Berrozpe)
- Soldadura eta galdaragintza (La Salle Berrozpe)

Goi Maila:

- Gizarteratzea (Leizaran Institutua)
- 3D animazioak, jokoak eta multimedia elkarreragileak (ESCIVI)
- Irudia argiztatu, hartu eta tratatzea (ESCIVI)
- Ikus-entzunezko eta ikuskizunen produkzioa (ESCIVI)
- Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa (ESCIVI)
- Ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako soinua (ESCIVI)
- Administrazioa eta finantzak (La Salle Berrozpe)
- Fabrikazio mekanikoko diseinua (La Salle Berrozpe)
- Mantentze-lan elektronikoa (La Salle Berrozpe)
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa (La Salle Berrozpe)
- Fabrikazio adimenduna (La Salle Berrozpe)

PREST! azoka aukera paregabea izango da Lanbide Heziketako familia desberdinak bertatik bertara ezagutzeko, zalantzak argitzeko eta gazteei etorkizun profesionala hautatzen laguntzeko. Andoainek berriro ere LHren aldeko apustua egiten du, tokiko garapen ekonomiko eta sozialaren motor gisa.

Andoain, 2026ko martxoak 10

## **El Ayuntamiento de Andoain y los centros de Formación Profesional han puesto en marcha la 2ª Feria de Formación Profesional de Andoain**

- El Ayuntamiento de Andoain y los tres centros que ofrecen Formación Profesional en la localidad (La Salle Berrozpe, el Instituto Leizaran y ESCIVI) han organizado conjuntamente la 2ª Feria de Formación Profesional de Andoain, con el objetivo de dar a conocer las oportunidades que ofrece la FP a la juventud de la comarca y ayudarles en la elección de su futuro profesional.

Esta segunda edición dará continuidad al camino iniciado el año pasado, pero este año se presenta con marca propia: PREST!, bajo el lema “tu oportunidad”. A través de esta iniciativa se quiere ofrecer una visión global y actualizada de la Formación Profesional que se imparte en Andoain, poniendo en valor su oferta formativa.

La feria se celebrará los días 16 y 18 de marzo, en la sala de exposiciones de Bastero Kulturgunea:

- 16 de marzo (lunes): 10:00–14:00 y 16:00–20:00.
- 18 de marzo (miércoles): 10:00–14:00.

El evento estará abierto a toda la ciudadanía de Andoain y alrededores.

### **Mesa redonda y stands informativos**

El 16 de marzo, a las 18:00 horas, tendrá lugar en Bastero Kulturgunea la mesa redonda titulada “Diseñando el futuro: la FP, un camino lleno de oportunidades”. Este coloquio abordará el valor de la Formación Profesional, sus salidas laborales y las oportunidades de futuro que ofrece.

Además, a lo largo de la feria habrá stands informativos para conocer de forma visual y práctica la oferta de cada centro. En los stands, profesorado y alumnado explicarán los contenidos de los ciclos, las prácticas y las salidas profesionales, y las personas que acudan podrán recibir orientación personalizada.

## **Una amplia oferta organizada en colaboración**

En la feria participarán los tres centros que conforman la oferta de FP en Andoain: el Instituto Leizaran, ESCIVI y La Salle Berrozpe. La colaboración entre los tres centros y el Ayuntamiento refuerza una apuesta compartida por la Formación Profesional.

La Formación Profesional que se imparte en Andoain cuenta con una alta empleabilidad, y las empresas de la comarca demandan cada vez más estos perfiles técnicos y especializados. Además, la FP permite realizar prácticas desde el primer curso a través de la Formación Dual, así como adquirir experiencia laboral en el extranjero mediante becas Erasmus+.

## **Oferta de los centros participantes**

Grado Básico:

- Electricidad y Electrónica (La Salle Berrozpe)

Grado Medio:

- Atención a personas en situación de dependencia (Instituto Leizaran)
- Disc-jockey, vídeo y sonido (ESCIVI)
- Mantenimiento electromecánico (La Salle Berrozpe)
- Soldadura y calderería (La Salle Berrozpe)

Grado Superior:

- Integración Social (Instituto Leizaran)
- Animaciones 3D, juegos y entornos multimedia interactivos (ESCIVI)
- Iluminación, captación y tratamiento de imagen (ESCIVI)
- Producción de audiovisuales y espectáculos (ESCIVI)
- Realización de proyectos audiovisuales y espectáculos (ESCIVI)
- Sonido para audiovisuales y espectáculos (ESCIVI)
- Administración y Finanzas (La Salle Berrozpe)
- Diseño en fabricación mecánica (La Salle Berrozpe)
- Mantenimiento electrónico (La Salle Berrozpe)
- Programación de la producción en fabricación mecánica (La Salle Berrozpe)
- Fabricación inteligente (La Salle Berrozpe)

La feria PREST! será una oportunidad única para conocer de primera mano las diferentes familias de la Formación Profesional, resolver dudas y ayudar a la juventud en la elección de su futuro profesional. Andoain vuelve a apostar por la FP como motor de desarrollo económico y social local.

Andoain, 10 de marzo de 2026